

Galegoaren aldeko manifestarien kontra egin du Guardia Zibilak Pontevedrako O Grove herrian

URKO APAOLAZA AVILA :: 02/10/2021

Galiziera hizkuntzaren aldeko ekintzaileek badute beste historia bat kontatzeko, zoritzarrez, euren liburu beltzean

Galegoaren aldeko manifestarien kontra egin du Guardia Zibilak Pontevedrako O Grove herrian

Agenteek Galiziako Hizkuntza Normalizaziorako Mahaiko kideak bultzaka hartu dituzte A Toxan toponimia ofizialaren aldeko elkarretaratze bat egiten ari zirela, Felipe V.a espainiar erregearen bisita bat probestuz.

Guardia Zibilak hizkuntza normalizaziorako ekintzaileak errepidetik kanporatzen A Toxako zubian, O Groven. (irudia: A Mesa Normalización Lingüística)

Galiziera hizkuntzaren aldeko ekintzaileek badute beste historia bat kontatzeko, zoritzarrez, euren liburu beltzean. O Groven gertatu da asteazken honetan. Pontevedrako herri horretako A Toxa irla ezagunean -bainuetxeak, eliteentzako aisialdi guneak eta bilkurak egiteko azpiegiturak dauden tokian- Foro La Toja egiten ari ziren goi mailako agintari politiko eta ekonomikoak, tartean Felipe Borboi espainiar erregea, “balore atlantikoen” inguruan hitz egiteko.

Galiziako Hizkuntza Normalizaziorako Mahaiak deituta elkarretaratzea egin dute irla eta herria elkartzen dituen zubi luzean, toponimia ofiziala errespetatu dadila eskatu eta A Toxa izenaren alde. Elkarretaratzean *A Toxa polo seu nome* edo *Eu quero galego* leloak zeramatzaten pankartak zabaldu dituzte.

Guardia Zibilak indarka hartu ditu hizkuntza gutxituaren aldeko ekintzaileak, zubia gurutzatzea eragotziz. Manifestariak espalora bultzaka bidali dituenean hainbat lagun lurrera bota ditu, tartean Marcos Maceira Mahaiko presidentea.

Mahai horretako bozeramaileek, eraso salatzeaz gain, hizkuntza normalizazioaren alde hitz egin dute: “Lotsagarria da bi toponimoen ofizialtasuna aitortzen duen legedia onartu eta 35 urtera oraindik mobilizatu behar izatea”, adierazi dute, **Nós Diariok** jaso duenez. Hala, Espainiako Gobernuari exijitu diote betearazi dezala legea hizkuntzaren eremuan “eta eskatu diezaiola Foro horri toponimo legitimo eta legala erabiltzea, A Toxa izena duelako”, azaldu du Marcos Maceirak berak.

https://www.argia.eus/albiste/galegoaren-aldeko-manifestarien-kontra-egin-du-guardia-zibilak-pontevedrako-o-grove-herrian?fbclid=IwAR322IU_BrGUg3RM75KsfQppcrwIsO6ZQH6IJWCYQJm5DIFcGaxb2s_Bm vk

https://www.lahaine.org/mm_ss_est_esp.php/galegoaren-aldeko-manifestarien-kontra-egin